

## BANAKETA KANALA:

**Informazioa:** Gure enpresan banaketa-kanal desberdinak izango ditugu.

- Onlineko salmentak (kanal zuzena berezoengana hurbiltzeko produktua)
- Bitartekariak erabiliz ( jostailu-dendetan salduz)

## -SALMENTA ETA EBALUAKETA:

Gure **webgune**aren bitartez produktuen informazioa eskuratu ahal izango dute eta baita hauek erosi ere. Webgunea marrazkiekin eta gauza deigarriekin hornituta egongo da, eta oso erreza izango da bezeroentzat bilatzen ari diren edozein produktu aurkitzea. Edozein zalantza izanda, bertan izango dute gure telefono zenbakia eta emaila gurekin harremanetan jarri ahal izateko.

Erosketaren ondoren inkesta bat bidaliko diegu produktua kalifikatzeko eta baita gure zerbitzua ere. Horren bitartez, zer eta nola hobetu dezakegun aztertuko dugu.

## -EROSKETAREN ONDORENGO BIDALKETA:

Banaketa kanalei dagokionez, **SEUR banaketa-enpresa azpikontratatuta** izango dugu gure produktuak bezeroek hautatzen duten helbidera eraman ahal izateko. Edozein arazo izanez gero, guk izango gara aldaketa edo itzulketaren arduradunak, hau da, gastu guztiak gure mende egongo dira, bezeroari lana murrizteko.

Gainera, ziurtatu egiten gara produktua bidalketa epearen barruan heltzea eta egoera onean.